

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresaren funtsezko jarduera eskumuturrekoak sortzea da. Horretarako gure Txinako hornitzaileei erositako materialak erabiliz, hau da, eskumuturrekoen goma eta geolokalizatzailea erabiliz, SaFirst produktua sortuko dugu. Behin materialak gure biltegian egonda gure lana da bi produktuen arteko uztarketa egitea eta gero merkaturatzea. Baina prozesu hau hemen euskadin egiten da. Bilbon alokatu dugun alokairuan prozesu hau egingo dugu.



Gure enpresak egingo duen jarduerarik garrantzitsuena eskumuturrekoa (goma) eta geolokalizatzailea elkartzea da, geroago produktu hori kontsumitzaileei saltzeko. Horretan emango genuke denbora gehiena, hala ere, gure Bilboko egoitzan kontratatutako norbait egongo litzateke beti SaFirst saltzeko prest.

Lehentasunen barruan, zerrenda finko bat dugu, jarraitu beharreko pausoekin. Lehenengoz, Txinatik etorritako produktu guztiak begiratu behar dira, ondo etorri direla ziurtatzeko. Hori behin eginda, eskumuturrekoak eta geolokalizatzaileak elkartuko genituzke, prest egoteko edonori bidaltzeko eta saltzeko. Hau izango litzateke lehentasun gehien duen jarduera. Pauso hau ez badugu egiten ezin dugu SaFirst saldu.